

# ELORRIO, TOPALEKUA

## AURKIBIDEA

- 1. Elorrio, historikoa eta berezkoa.**
  - Ondarea. -Kokapena. -Mendiak eta ibaiak. -Auzuneak eta ermitak.
- 2. Elorrio, aspaldikoa. (IX-XIII. mendeak).**
  - Argiñetako hilobiak. -Memaia. -Etxabarriako San Agustin eliza.
- 3. Elorrio, Erdi-Aroko hiria. (XIV-XV. mendeak).**
  - Hiriaren sorrera. -Kokapena eta harresiak. -Elorrioko gudua.
- 4. Elorrio, monumentuen hiria. (XVI-XVIII. mendeak).**
  - Sortzez Garbiaren basilika. -Bide-gurutzeak. -Jauregiak. -Santa Ana monasterioa.
  - Udaletxea.
- 5. Elorrio, termen hiria. (XIX-XX. mendeak)**
  - Bainuetxeak. -Turismoa eta aisia. -Berriozabaletako iturria eta haren mezenasa.
  - Hilerria.
- 6. Elorrio, industriaren hiria. (XX-XXI. mendeak)**
  - Meak, petrolio eta trenbidea. -Industrializazioa. -Zerbitzuak eta etorkizuneko apustua.
- 7. Elorrio, tradizioaren hiria.**
  - Errebonbilloak, Ferixa Nausikoak eta Musikaire. -Berrio-Otxoaren beatifikazioaren mendeurrena, Ibilaldia, 650. urteurrena eta Euskal Herriko marmitako txapelketa.

## **1. ELORRIO, HISTORIKOA ETA BEREZKOA**

- **Ondarea.** Elorrio hiriak duen ondare historiko eta artistikoa benetan izugarria da kantitateari nahiz kalitateari begiratuta, eta, era berean, horixe da haren historia zoragarri eta osotik iritsi ahal izan zaigun lekukorik onena. Elorrioren harria -harginonen lurra izanik<sup>1</sup>- edozein bazterretan, edozein txokotan, edozein eraikinetan aurki daiteke, eta forma guztietan ikus, senti eta uki dezakegu. Argiñetako hilobietatik (IX. mendea) eraikin garaikideetara, elizak, ermitak, jauregiak, baserriak, gurutzeak eta beste hainbat monumentu bazter utzi gabe, Elorrio harrizko multzo harmonikoa da.

Hain zuzen ere, ondare zabal eta aberats horren ondorioz, Elorrio multzo historiko eta artistiko izendatu zuten 1964an, eta gaur egun harrotasun handiarekin esan daiteke izendapen hori lortu zuen Bizkaiko lehenengo udalerrria izan zela.

- **Kokapena.** Elorrio, Bizkaiko hego-ekialdean dago, ia zirkularra den bailara eder eta berde baten erdian. Bailara horri, antzinatik eta hiria sortu aurretik, Elorrioko ordokia<sup>2</sup> esaten zaio. Elorriok, Arrasatek (Gipuzkoa) eta Aramaiok (Araba) hiru lurralde historikoen eta bakoitzari dagokion eskualdearen (Durangaldea, Debagoiena eta Gorbeialdea) gunea osatzen duen triangelu bitxia eratzen dute. Hori dela eta, Elorrio betidanik izan da –onerako nahiz txarrerako– derrigorrezko igarolekua, loturarako, harremanetarako eta trukerako zubia; hartu eta jasotzeko, irakasteko eta ikasteko, sartzeko eta irteteko gunea, alegia.

Muga pribilegiatu eta estrategikoaren izaera ematen dio, eta horrek berorrek hainbat arazo eta auzi ere eragin dituen arren, batez ere XVI. mendetik gaur egunera bitarte, elorriarrek oso ondo baliatu izan dute merkataritzan lehenengo, eta industrian, ondoren. Ikuspegi ekonomiko/geografiko hori, sektore ekonomikoaren eta inguru fisiko/geografikoaren arteko lotura zuzena, alegia, ezin hobeto interpretatu zuen Euskadiko kooperatibarik garrantzitsuenetako batek, Eroskik, duela urte batzuk, eta hiriak eskaintzen dituen komunikabideak antolatzeke aukerak hedatu zituen.

- **Mendiak eta ibaiak.** Elorrio malda azkarreko mendi-mazelaz eta muino mailakatu inguratuta dago; muino horiek mendi garaietaraino iristen dira: Oiz (1.026 m), Memaia (669 m), Intxorta (737 m), Erdella (660 m), Santa Mariñazar (679 m) eta Udalaiz mendigune bitxiaren gailurra (1.092 m), eta bigarren mailan, Memaiaren atzean, Anbotoko mendilerroaren kareharrizko gailurreria (1.296 m). Horrenbeste mendi, mazela eta muinok hainbat mendate leun eragin dituzte, eta horietan barrena, errepidez, lotzen zaio beste udalerrri batzuei: Pagatza mendatea (Elgeta eta Bergarantz), Kanpanzar (Arrasaterantz) eta Leiz (Berrizerantz). Eta, hori horrela, pasabide bakarra geratzen da mendebaldean, eta Zumelegi errekarri jarraituz, benetako korridorea eratzen du Durangalderantz eta Bizkaiko barnealderantz.

---

<sup>1</sup> “Argiñeta” toponimoari kasu eginez.

<sup>2</sup> Fundazio-gutunean halaxe dio: “... *la entrada por nuestro llano de Elorrio...*”. J.R. Iturriza y Zabala, T. II. 256. or. Elorrio hiriaren fundazio-gutuna. 1356. urtea.

Izan ere, Elorrión, bailarak eta mendialdeak zer bakarra osatzen dute, eta hiriaren erdiguneko etxe-multzoekin, argazki benetan ikusgarria da.

Elorrioko bailarako sare hidrografikoa osatzen duten erreken artean, hauek dira aipagarrienak: Kortazar, Iguria, Abola, Intxorta, Larrarte, Errekazabaleta, Aldape, Mendraka, Lekeriketa eta Katategi. Horiek guztiek eta besteren batek osatzen dute Zumelegi<sup>3</sup> ibaia. Zumelegi ibaiak, era berean, eta lehen esan dugun bezala, mendebalderantz, Atxondo bailaran barrena, Arrazola<sup>4</sup> ibaiarekin egiten du bat, eta han, Ibaizabal izena hartzen du.

- **Auzuneak eta ermitak.** Hirigunearen bueltan, eta gehienak mendi-mazela erdi aldera, daude gaur egun Elorrión osatzen duten 16 auzuneak; izan ere, 2005ean, eta epai-bidez, Arboleta Berrizko<sup>5</sup> elizatearen esku geratu baitzen. Gaur eguneko toponimiaren arabera, hona hemen, ordena alfabetikoan: Aldape, Aramiño, Arauneta, Azkarreta, Berrio, Berriozabaleta, Gazeta, Gaztañeta (Gastea), Iguria, Leiz, Lekeriketa, Mendraka, Miñota, San Agustin, Urkizuaran eta Zenita.

Auzo horietako askotan, gaur egun, antzinako 19 ermita daude; txikiak izan arren, xarma eta edertasun handikoak. Hona hemen: San Juan, San Jurgi eta Santiago Aldapen; Santa Eugenia Arabion; Santa Eufemia Araunetan; San Esteban eta Santurban Berrion; Santa Katalina Berriozabaletan; Andra Mari Gazetan; Santa Katalina eta Santa Lutzia Igurian; San Lorentzo Leizen; Santo Tomas Mendrakan; San Bartolome Miotan; San Fausto San Fausto kalean; San Anton, San Jose eta San Roke Urkizuaranen; eta San Adrian Zenitan (Argiñeta).

Dena dela, XVI. mendearen erdialdean, ermiten zerrendan –1545. urte inguruko agiri baten arabera– hogeita hiru zeuden jasota, eta 1734an, Kalagorriko Apezpikuaren mandatariak Elorrioko ermitak bisitatu behar zituela eta, hogeita bost<sup>6</sup> ere jaso ziren (betiere, bi testuetako batean ere ez bada aipatzen ermitarik santu baten baino gehiagoren izenean). Dena dela, eta kontuan hartuta bigarren agirian ez direla agertzen gaur egun bazirela badakigun ermita batzuk, argi dago antzina gaur egun baino gehiago zirena. Izan ere, XX. mendearen erdialdera arte 20ra iristen ziren. Hala ere, 1957. urtean, Gasteako San Martin de Tours ermitaren aurriak jauzi egin ziren. Azkeneko urteetan, kontzientzia-maila handiagoari esker, hainbat ermita zaharberritu dituzte, baina, hala ere, aipagarria da Berriozabaletako Santa Katalina ermita hain utzita egotea, bereziki, ermita neoklasikoaren eredu bitxia izanik.

---

<sup>3</sup> 1013an aipatua da, Etxabarriako San Agustinen eratze eta lagatze eskrituran: “...*ett quomodo curritt rigum quod dicittur Çumelhegi...*”. Bizkaiko Foru Artxiboa. (Bilbo, aurrerantzean BFA). Elorrioko Udal Artxiboa. 340/4219. Juan Sánchez de Esteibar-ek 1572ko martxoaren 21ean egindako kopia soila.

Gonzalo de Otalora y Guisasa durangarrak “*Elorrión*” ere deitu zuen XVII. mendean *Micrología geográfica del asiento de la noble merindad de Durango por su ámbito y circunferencia* izeneko lanean. Sevilla, 1634.

<sup>4</sup> “*Marzana*” ere izendatua agertzen da lehen aipatutako toki berean. G. de Otalora y Guisasa, *Micrología geográfica del asiento de la noble merindad de Durango por su ámbito y circunferencia*. Sevilla, 1634.

<sup>5</sup> 2001eko urrian Bizkaiko Batzar Nagusiek hartu zuten erabakia berresteko, 2005eko urtarrilean EAEko Auzitegi Gorenak emandako ebazpena dela bide.

<sup>6</sup> I. Agirre Kerexeta, *Elorrión*. Monografías de pueblos de Bizkaia. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo, 1992. (41. or.).



## **2. ELORRIO, ASPALDIKOA. (IX-XIII. MENDEAK)**

- **Argiñetako hilobiak.** Argiñetako hilobiak IX. mendekoak dira, eta horiei buruzkoak dira (ibaian aurkitutako hainbat txanpon erromatar izan ezik) gaur egun Elorrio udalerria denaren gaineko lehenengo berri idatziak.

Argiñetako hilobiak San Adrian ermitaren aurrean kokatuta daude; 20 dira guztira eta horietako bat bikoitza. Hilobiekin batera 5 hilarri daude, lau diskoide eta bat triangeluarra. Hilobiak kristauak direla uste da eta 893. urtean datatuta daude, haietako batean agertzen den latinezko inskripzioaren<sup>7</sup> arabera. Hilarriak, ordea, kristau-aurrekoak dira, beraz, zaharragoak.

Multzoa osatzen duten hogeit hamar sarkofagoetatik bik baino ez dute inskripzioen bat, eremuan sartu eta ezkerretara dagoen bikoitzaren ostean daudenek. Inskripzio horietako bat da informazio gehien ematen duena; izan ere, haren itzulpena (data izan ezik) aho batez onartu da: kristauak direla, bertan datzanaren izena eta kronologia. Bigarrenak arrianismoaren aurkako anagrama bitxi bat du, eta hainbat interpretazio eta teoria eragin ditu.

Gaur egun inskripzioak dituzten bi estalkiak eta bost hilarriak erreplikak dira. Jatorrizkoak, beren balio historikoagatik eta kanpoan egonik hondatu egiten direlako, ermitaren barruan gordeta daude.

XVII. mendetik gaur egunera bitarte, hainbat ikerlarik aztertu eta idatzi du Argiñetako hobiratzei buruz: Henao aita, Iturriza, Delmas, Etxegarai, Alonsotegi, Coscojales, Amador de los Ríos, León de Capelastegi, Labayru, Darío de Areitio, Aristides de Artiñano, Gómez Moreno, Ibarra y Bergé, Beraza de la Rica, Pagadigorria, Ugartetxea, Agustín Azkarate eta Iñigo Agirre, besteak beste. Hala ere, badirudi sekretu bat baino gehiago gordetzen dutela oraindik, garai hartako gizakien pentsamoldeari buruz, heriotzarekiko zituzten sinesmenei buruz eta, nola ez, Euskal Herrian kristautasunak izan zuen garai ilun horri buruz.

- **Memaia.** Elorrioko beste auzune batzuetan ere aurkitu izan dira beste hilobi batzuk, beste konposizio eta data batekoak ordea: Gazetan, Miñotan, Mendrakan eta Berriozabaletan. Baina, zalantzarik gabe, interesgarrienak Memaiaikoak dira. Leku hori 1053. urtean, jada, aipatuta agertzen da Etxabarriko San Agustin elizatea lagatzeko eta eratzeko eskrituran: "...*monasterium quod dicittur Memaia...*"<sup>8</sup>. Horren arabera, bazen Memaian tenpluren bat, San Agustinekoa baino zaharragoa. Agustín Azkarate arkeologo elorriarrak hainbat arkeologia-lan egin zituen inguru hartan, eta bi aztarnategitan banatu zuen: lehenengo aztarnategia, Memaia I izenekoa, dagoeneko desagertuta dagoen Santikurtz ermita zegoen tokian dagoela jotzen da; eta bigarrena, Memaia II izenekoa, Santa Marina izeneko tenplua egon zen tokiari dagokiola uste da. Tenplu biak IX-X. mendekoak direla jotzen da, eta hori hala bada, nekropoliekin batera, Goi Erdi Aroko Bizkaiko bi tenplu zaharrenetakoak izango lirarteke. Memaiairen gainean egindako

---

<sup>7</sup> Idazle batzuek 921 aroa interpretatzen dute, hau da, 883. urtea; beste batzuek, ordea 931 aroa irakurtzen dute, hots, 893. urtea.

<sup>8</sup> BFA. Elorrioko Udal Artxiboa. 340/4219.

ikerketek susmo hau eragin zioten Azkarateri: “*la existencia de una comunidad de escaso potencial demográfico, recursos económicos reducidos y en un proceso de aculturación cristiana todavía en desarrollo*”<sup>9</sup>.

Horrekin guztiarekin, Elorriok pribilegio bat badu: nekropoli eta elizekin zerikusia duten aurkikuntza gehien eta kalitate handikoen izan dituen Bizkaiko herria da, eta horiek baliagarriak izan dira gure Historiako sasoi ilun hori –Goi Erdi Aroa– interpretatzeko. Ondorioz, ia frogaturik dago inguru horretako biztanleak garai hartan mazela-erdian kokatuta zeuden gune txikitari bizi zirela, elkarrengandik oso hurbil eta eraikin erlijioso baten biran. Material galkorrez (zurez) egindako etxebizitzek eratzen zituzten kokaleku txikiak, eta garrantzi txikiko tenpluak, gainerako eraikinei gailendu gabe. Bitxia da, baina toki horiek guztiek (Memaiak izan ezik, mendiaren laiotzean kokatuta dagoelako) biztanleen jarraitutasuna izan dute gaur egunera arte<sup>10</sup>.

- **Etxabarriko San Agustin eliza.** 1013ko otsailean, Munio Sanchez jaunak eta haren emazte Leguncia andreak, Durangoko Lurreko kondeek, Etxabarriko San Agustin eliza eratu zuten. Eratze eskrituran halaxe aipatzen da “...*monasterio berria*...”<sup>11</sup> eta horrek pentsarazi die bati baino gehiagori toki hartan zurezko eliza ezezagun bat izan zela haren aurretik. Hala ere, Dona Gilen arabera ez du zertan horrela izan, garai hartako dokumentazioan oso ohikoa delako egikera “berriko” obra egitean, horrela adieraztea, lehenengoa izan zein izan ez<sup>12</sup>.

Ez da gauza argia aldeztu aurretik biztanle-multzoa egotea ere, eta horrek, hala izanez gero, indartu egingo luke aurretik tenplu bat bazelako ustea; baina begi-bistakoa da eratze horrekin, mazelatako ohiko herrixken kontraposizioan, apurka-apurka beheko eremuetan biztanle-okupazioa garatzea eta sustatzea lortu nahi dela.

Finean, eta hasieran esan dugun bezala, XI. mendearen erdialdean, eliza prerromanikoa eraikitzen hasi ziren. Eliza propioa, ordena monakalaren baten babespean izan beharrean zaindari laiko<sup>13</sup> baten babespean, parrokia gisa ziharduena (bertan kalonje batzuk bizi zirela) eta haren jurisdikziopean hainbat ermita zituena. Eraikin hori tenplu erromaniko batek ordeztu zuen XII. mendean, XVI. mendearen hasieran gaur eguneko eliza gotikoa eraikitzen hasi ziren arte, San Martin eta Santa Marinako kanpoko hilobi-kaperarekin batera; eta haraxe eraman zituzten, tradizioaren arabera, kondeen momiak.

XVII. mendean hainbat obra egin zituzten, eta eliza erabat itxuraldatu zen. Hala, 1607. urtean absidea gehitu zitzaion; 1661. urtean kanpoko ataria, eta 1666. urtean, sakristia eraiki zen. Obra horiei guztiei XVIII. mendean eman zitzaion segida, eta mende horretakoak dira gaur

---

<sup>9</sup> A. Azkarate, *Arkeoikuska* '87. 1988.

<sup>10</sup> D. Gil Abad, *Elorrio. Urbanismo medieval de la villa*. Bilbo, 1997. (39. or.).

<sup>11</sup> BFA. Elorrioko Udal Artxiboa. 340/4219.

<sup>12</sup> D. Gil Abad, *Elorrio. Urbanismo medieval de la villa*. Bilbo, 1997. (37. or.).

<sup>13</sup> Sortu ondoren errege-zainpeko bihurtu zen, eta Erregeak erabakitzen zuen, zerbitzuren baten ordainetan edo hura eskertzeko, zaindari nor izendatu. Hortaz, XIV. mendearen amaieran Juan Martínez de Ibarguen zen haren zaindaria; XV. mendean Ibaratarren eskura igaro zen bitartean. Izan ere, San Agustin, zentro espiritualak izateaz gain, ekoizpen zentro garrantzitsu ere bazen, eta diru-sarrera handiak eragiten zituen, “hamarrena” izeneko zerga kasu.

eguneko korua (egitura barrokoa eta arku eskartzano zabala dituen eta jatorrizko zurezkoaren ordezkoa), eta kanpandorrea, obra barroko bikain eta zaila<sup>14</sup>, Javier de Arizabaletak 1742an amaitua.

Hala ere, maisu-lana, barruko XVI. mendeko horma-margoekin edo freskoekin batera, erretaula nagusia<sup>15</sup> da. Errenazimenduan koka daiteke, egikera platereskoan hain zuzen, XVI. mendearen bigarren heren aldean, eta kalitate artistiko handiko ale polikromatu zoragarria da. Lerdentasunagatik, harmoniagatik eta konposizio orokorragatik nabarmentzen da, eta horrez gain, irudien adierazgarritasunagatik, anatomiagatik eta jantzien tolesdurengatik ere bai. Zoritxarrez, ez dakigu egilea nor izan zen eta noiz egina den. Irudi nagusia San Agustin apezpikua da; egikera gotikoko irudia da, eta, beraz, erretaula bera baino zaharragoa.

Amaitzeko, ezin dugu ahaztu Komentua, gaur egun barne-birmoldaketaren premian dago; XVI. mendearen erdi aldekoa da, eta elizaren sestra berean zuzeneko sarbide bitxia du.

---

<sup>14</sup> 1718an oinaztura batek lehengo kanpandorrea suntsitu zuenetik, hainbat eta hainbat izan ziren proiektu berriak eragin zituen zimendatze-arazoak, horregatik, une hartako euskal arkitektoen lana behar izan zen (Erdoiza, Lekuona, Abaria, Ibero, Lizardi, Zuaznabar eta Arizabaleta).

<sup>15</sup>Gaur egun jatorrizko itxura zein zen ikusi ahal izateko, kontserbazio eta zaharberritze-prozesu bat behar izan zuen. Proiektu hori Bizkaiko Foru Aldundiaren Ondare Historikoko Zerbitzuaren Zaharberritze-tailerrak landu eta ERCOAk gauzatu zuen 1995 eta 1997 bitartean.

### **3. ELORRIO, ERDI-AROKO HIRIA. (XIV-XV. MENDEAK)**

- **Hiriaren sorrera.** 1356ko ekainaren 27an Elorrio Historian sartu zen. Don Tello, Bizkaiko Jaunak, hiriaren sorrerarako (San Agustineko lurretan) pribilegioa eman zuen, gipuzkoarrak jaurren sartu eta erasoak gauzatzea saihesteko asmoz, bando-gerrek Euskal Herria suminduran murgilduta zuten garaian. Hiria sortzeko arrazoiak biztanlearen defentsaren ingurukoak izan ziren batik bat, baina ez ditugu baztertu behar, agian, etorkizunera begirako arrazoi ekonomiko edo komertzialak ere, benetan halaxe izan baitzen. Debagoiena eta Debarrenarekiko merkataritzako ibilbidea sustatzea zen helburua, eta bide hori XV., XVI. eta XVII. mendeetan gauzatu zen bete-betean.

- **Kokapena eta harresiak.** Lehenengo hiria, Erdi Arokoa, izen bereko ordokiaren erdian kokatu zen, horretarako, Zumelegi ibaiak osatzen duen meandroa baliatuz, eta hiria Iparretik eta Ekialdetik babesteko hobiarena egingo du. Planoa errektangeluarra da eta, bertan, ibaiarekiko paraleloak diren bi kaletan (Erreka kalea eta Kanpo kalea) eta haiek zeharkatuz, haiekiko perpendikularra zen kale estuago edo kale kantoi batean banatu zituzten etxeak. Multzoak sarrerako sei ate zituen eta, hasieran, zuresi batez inguratu zuten, eta gerora, apurka-apurka harresi batez ordeztu zuten. Hortaz, XIV. mendearen bukaerarako 1,20 m-ko lodierako lehenengo harresia bazela esan daiteke, hareharrizko harlangaitzean egina. Harresi hori ere moldatu egin zen geroago, eta horma sendoagoa (1,30 m-koa) eta gaur egun oraindik baden sarrerako atea eraiki zituzten. Atari hori XV. mendekoa dela esan daiteke seguru, bertan duen Errege Katolikoek armariari<sup>16</sup> esker. XVII. mendetik aurrera hasi zen igartzen harresia hondatzen ari zela.

Hiru mende eskasean (1356tik 1630era) San Agustin elizatea eta hiria aldi berean izan ziren, eta lehenengoko legeak bailara osoan aplikatzen ziren, harresi barruko hirian eta Elorrioko eratze-eskrituran adierazten den nekazari-gunean izan ezik. Hala ere, 1630ean San Agustin Elorriori atxiki zitzaion, eta gertaera hori zentzuzkoa da nolana ere, San Agustinen kokapena bere jurisdikzioak osatzen zuen espazio zirkularra artezteko egokiena ez zelako eta hiriarena, aldiz, bai. Bestela ere, kontuan hartuta Elorrioko Sortzez Garbiaren eliza eraiki zenetik, San Agustin arlo guztietan, eta bereziki erlijioari dagokionez (horrek dakarren guztiarekin) garrantzia galtzen ari zela hiriaren aldean.

- **Elorrioko guduak.** Garai bortitz haietan, beste hainbat hirik bezalaxe, Elorriok ere ezin izan zien bando-gerren ondorio latzei ihes egin, eta 1468. urtean, harresiak eta inguruek hiriaren historiako liskarrik ospetsuena bizi izan zuten. Liskar hartan, inguru haietako bi leinu garrantzitsuenek, Ibarretarrek (oinaztarrek) eta Marzanatarrek (ganboarrak eta hiriaren aldekoak) euren arteko aldeak nabarmen erakutsi zituzten eta. Desakordio haiek aspaldikoak

---

<sup>16</sup> Gaur egun, atari horri “Don Tello”ren ataria esaten zaio, nik pentsatu nahi dut izen bereko kalean dagoelako; izan ere, hemen ikusi dugun bezala, eta kronologiari kasu eginez –armarria adibiderik onena baita– atari horri “Errege Katolikoek” ataria deitzen hasi beharko genuke.



ziren: Ibaratarren aginpekoa zen San Agustin elizatearen agintea Apatamonasteriora, Axpera eta Arrazolako zati batera ere heltzen zenez, Marzanatarren desioak eta jomugak zeharo mugatuta zeuden. Eta Lope García de Salazar<sup>17</sup> garaiko kronikagileak azaletik aipatzen duen bezala, borrokari ekiteko arrazoia edo azkeneko aitzakia, betidanik jo izan da bi bandoetako bi zerbitzariren arteko joko-liskarra, bietako baten heriotza eragin zuena; baina ez dugu ahaztu behar, harresietatik kanpo, 1459az gerotik, Sortzez Garbiaren<sup>18</sup> eliza eraikitzen ari izanak egoera hartan eta une hartan eduki zezakeen eragina. Ibaratarrak San Agustineko aginpeko zirenez, beren eskumenak eta diru-sarrerak murrizteari edo galtzeari zioten beldurra zen horren ondorio zuzena.

1468ko otsailaren 22an, Sancho Ruiz de Marzanak desafio-gutuna finkatu zuen Ibaratarren kontra Abadiñoko San Trokaz elizaren atarian, garai hartako ohiturei jarraiki. Oinaztarren erantzuna berehala iritsi zen, 4.000 gizon eta beste 80 zaldun elkartu ziren Ermuan, eta handik Elorriora abiatu ziren Ibaratarrei laguntzeko. Horien artean Lope García de Salazarren<sup>19</sup> bost seme eta Zaldibar, Mujika, Butroi eta Arteagako etxeetako senitartekoak zeuden. Bien bitartean, ganboarrak, Abendañotarrak buru zituztela, hiria defenditzera abiatu ziren eta Marzanatarrekin bat egin zuten. Hortik aurrera, eta gudu hasteko zela (oinaztarren bonbardariak hiriaren harresian armak prestatzen ari zirela), badirudi harresien barrutik bonbarda-tiroa gertatu zela; horrek harridura eragin zuen oinaztarren artean, eta Mujikatarrek osatzen zuten atzeguardiak ihes egin zuen. Halako nahaste-borrastea edo traizioa<sup>20</sup> ikusita, kanpora irten eta geratzen zirenen aurka oldartu ziren ganboatarrak, eta Ibarra dorretxeari eraso egin eta arpilatu ere egin zuten.

Baina badirudi guduaren ondorioak denboran luzatu egin zirela, eta gerora errepresaliak eta suteak ere izan ziren; 1480an hirian (Juan de Uriaren etxeko atarian hain zuzen) izan zen sutea kasu. Era berean, San Roke kaleko Larreategi jauregiaren fatxadan dagoen oroitarran gehiegikeriak 1524an baretu zirela aipatzen da.

---

<sup>17</sup> L. García de Salazar, *Bienandanzas e fortunas*. Ángel Rodríguez Herreroren argitalpena. 1955.

<sup>18</sup> Hasieran Andra Mari izena zuena.

<sup>19</sup> Lope García de Salazarrek lau seme eta hiru senitarteko galdu zituen guduan.

<sup>20</sup> Garai horri buruz, orokorrean, eta Elorrioko batailari buruz, zehatzago, gehiago jakiteko: A. Dacosta, *Los linajes de Bizkaia en la Baja Edad Media: poder, parentesco y conflicto*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo, 2003. (363-365. or.).

#### **4. ELORRIO, MONUMENTUEN HIRIA. (XVI-XVIII. MENDEAK)**

Sasoi hobeak aipa ditzagun orain, XVI., XVII. eta XVIII. mendeak hain zuzen, Aro Modernoa eratzen dutenak eta Elorrio hiriarentzat urrezko aroa izango direnak. Andra Mari (gaur egun Sortzez Garbiaren Basilika) elizaren eraikuntzak –1459 eta 1595 bitartean–, eta harresietatik kanpo errebalak sortu izanak, gizarte dinamiko eta ekintzaileagoranzko aldaketa ekarri zuten. Munduari begira dagoen gizartea, oihalgile umil eta lantzagile ospetsuen gizartea XVI. mendean, eta manufakturatutako burdinaren nazioarteko merkatari garrantzitsuena XVII. eta XVIII. mendeetan. Hedapen-aldi luze horren eta bitartean hiriak jaso zuen diru-bidalketen ondorioa dira gaur egun ikus daitezkeen eraikin eta monumentu ezagunenak, bertan bizi izan zenaren lekuko mutuak<sup>21</sup>.

Eratu zenetik, hiriak hiru gorenaldi bizi izan ditu. Lehenengoa XVI. eta XVIII. mendeen bitartean gertatu zena –goia XVII. mendearen bigarren erdian lortu zuena–; burdinaren merkataritzari lotuta egon zen eta urrun-urruneko udalerriak lotu zituen: Debagoiena eta Debabarreneko udalerriak, Sevilla, Cadiz eta Amerika. Bigarrena bainuetxeen goi-aldiarekin bat egiten duena, XIX. mendearen erditik XX. mendearen hasierara; eta azkena, industrializazio prozesua, 60.ekoen hamarkadan goia jo zuena. Zalantzarik gabe, hiru aldi horietatik lehenengoa da hedadura handienekoa, halaxe erakusten baitu orduko ondareak.

- **Sortzez Garbiaren basilika.** Elorrioko ondare horren zati garrantzitsuena Sortzez Garbiaren basilikan barnebiltzen da. Gonzalo de Otorra historiagile durangarrak, 1634an jada, bitxitasunagatik eta gorputzagatik Europako eraikin ederrena zela deskribatu zuen. Halako handikerian jauzi gabe, hala ere, zalantzarik gabe, Bizkaiko elizarik handiena (barneko bolumenari edo espazioari erreparatuta) multzo bakarra da eta Euskal Herriko monumentalenetakoa.

Elizaren plantak hiru nabe ditu, eta erdikoa alboetakoak baino zabalagoa da. Barrualdean hainbat gauza nabarmentzen dira: 29 metroko altuera, gurutze-ganga konplexuak, kapitela polikromatuak, zutabe lerdin, zilindriko eta desbideratuak eta koru handia; baina bereziki, pinturak. Alde batetik, koruaren alboetako hormetan dauden Amabirjinaren Iragarpena eta Artzainen Gurtza. Jakin berri dugu, Rafael Lamarcak egindako azterketei eta ikerketei esker, Cornelius Schutenak<sup>22</sup> direla. Beste alde batetik, Ecce Homoren mihisea, Luis de Morales<sup>23</sup>, Extremadurako margolariarengandik jasotako egikera duena; eta Arimen mihisea, Lucas de

---

<sup>21</sup> Gai honi buruzko informazio gehiago: I. Basterretxea Kerexeta, *Hierro y palacios, Elorrio-Sevilla. Mercaderes elorrianos en Sevilla durante los siglos XVI y XVII*. Bilbo, 2004.

<sup>22</sup> Artista Flandestarra, izen berekoaren iloba. Gerora Espainiara joan zen, eta Sevillan hartu zuen bizileku, Murilloren ikasle gisa. Amberesen jaio zen (ez dakigu zer urtetan) eta Sevillan hil zen 1676an.

<sup>23</sup> “*El Divino*” izengoitia zuen, Badajozen jaio eta hil zen (1509-1586).

Valdés Lealen lana, Juan de Valdés Lealen<sup>24</sup> semea. Azkeneko horiek Arimen erretaula osatzen dute eta bigarrena da gai nagusia eratzen duena.

Eta, jakina, egikera barroko “churrigueresco”ko erretaula nagusi ikusgarria, azken aldian fase rococoan<sup>25</sup> kokatua, Bizkaian iraun duen garai hartako (XVIII. mendea) ikusgarriena eta San Gregorioko erretaula klasizistarekin (XVI. mendea) eta Balendin Berrio-Otxoaren aldare exotikoarekin batera (1908), barietate artistiko eta tenporal paregabea osatzen duena. Antzinako erretaula nagusi edo jatorrizko erretaularen ondoren, eta gaur egun dagoena baino lehen, XVII. mendearen amaieran, beste erretaula baten lanei ekin zieten, seguru aski kontraerreformista eta jite eskurialensekoa, Lamarca<sup>26</sup> dioen bezala.

Elizako lurrean 300 hilobi<sup>27</sup> hartzeko egindako obra handia, XVIII. mendekoa, erdialdekoa hain zuzen, dela esan daiteke. Hilobi horiek guztiak, harrigarria bada ere, ordena hertsian kokatuta daude, elkarren segidako ilara simetrikoetan, erdiko nabean eta alboetako nabeen zati batean. Izan ere, 1751. urtean Udalak, dekretu baten bidez, Gabriel Mendiolak emandako dirua honakoa egiteko erabiltzeko agindua eman zuen: “*encajonamiento de sepulturas de la iglesia de la Purísima Concepción*”<sup>28</sup>; Dona Gil egilearen ustez, une hartan ipini ziren mailan hilobi guztiak eta orduan egin zen elizako oholezko zoladura<sup>29</sup>.

Kanpotik eta elizpe zabalaren gainean, atari ederrak eta bao dotoreak, eta guztiaren eta guztien gainetik, dorre handientsuak erakartzen du gure arreta. 1672. urtearen inguruan amaitu zuten eraikuntza, eta gorputzei eta apaindurei dagokienez, 1568an Hernán Ruiz II.ak egindako Sevillako Giraldarekin antz handia du (antzinako minaretearen gainean erantsi errenazentista). Gertakari horren zergatia XVI. eta XVII. mendeetan elorriar askok Sevillarekin izan zuten harreman estua da<sup>30</sup>.

- **Bide-gurutzeak.** Jauregiekin, armarriekin eta Argiñetako hilobiekin gertatzen den bezalaxe, Elorriok dituen bide-gurutzeen multzoa Euskal Herrian udalerrri bakarrean aurki

---

<sup>24</sup> Sevillako margolari eta grabatzailea, Antonio del Castilloren ikaslea. Sevillan jaio eta hil zen (1622-1690).

<sup>25</sup> Elorrioko idazle klasiko guztiek –S. de Pagadigorria eta J. de Kerexetarengandik hasi eta I. Agirrerengana– barroko “churrigueresco” egikeran kokatzen badute ere, azken aldian, egile modernoagoek rococo egikeran kokatu izan dute, esaterako J. Zorrozueta Santistebanek, *El retablo barroco en Bizkaia* lanean. Bilbo, 1998.

<sup>26</sup> R. Lamarca, “El desaparecido retablo contrarreformista de la Purísima Concepción de Elorrio (Vizcaya). La escuela sevillana y los modelos flamencos en la estética de sus pinturas”. In: *Norba-Arte XVI (1996)*. Extremadurako unibertsitatea, 1998. (299-317. or.).

<sup>27</sup> J.R. Iturrizak *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encarnaciones* lanean 1967, II. liburukia (84. or.), 218 hilobi aipatzen ditu, hala ere, XVIII. mendeko plano batean 300 inguru zenbatu ziren. Elorrioko elizaren barruan lehenengo lurperatzeak 1530ean izan ziren, hori da jasota dagoen lehenengo data, eta horrela egin izan zuten XIX. mendearen erdialdera arte; eta orduan, osasun eta higiene-arrazoiak medio, hiriarren inguruan hilerria eraikitzea erabaki zuten, San Roken, hain zuzen. Aldi berean, XVI., XVII. eta XVIII. mendeetan, ohikoa izan zen tenpluaren kanpoaldean eta ondean lurperatzea.

<sup>28</sup> BFA. Elorrioko Udal Artxiboa. 6/77.

<sup>29</sup> D. Gil Abad, *Elorrio. Urbanismo medieval de la villa*. Bilbo, 1997. (211. or.).

<sup>30</sup> I. Basterretxea, *Hierro y palacios, Elorrio-Sevilla. Mercaderes elorrianos en Sevilla durante los siglos XVI y XVII*. Bilbo, 2004.

daitekeen kopurutsuena da. Antzinako “Guruzpideari” dagozkionak alde batera utzita – xumeagoak eta modernoagoak–, gaur egun bederatz<sup>31</sup> bide-gurutze aurki daitezke, guztiak XVI. mendekoak.

Kokapenari jarraituz, hauexek dira: Kurutziagako gurutzea, egikera espainiar-flandiarrekoa da, oso traza eta zizelkatu benetan konplexuak ditu, eta antzinakoena da (batzuen ustez, 1522 inskripzioa du, besteen ustez, berriz 1552); Kurutzebarrikoa (San Agustinen), “Kalbarioa” izena ere hartzen du; Santanakoa, 1566koa; Ugarteko gurutzea; Zenitako gurutzea; Santaelenakoa; Sanjuangoa, izen bereko kalean dagoena; Iguriakoa; eta Txanberingo edo Morgako gurutzea, Elgetarako igoeraren hasieran dagoena.

Bide-gurutze horien funtzioari edo eraikitze arrazoiei dagokienez, luze idatzi da; izan ere, batzuek diote puntu horietan kokatzen zela apaiza hilotzak hartzeko, zein auzotakoak ziren, edo, ankerkeria ezezagunen ordainezko monumentu zirela ere bai. Hala ere, kokapenari kasu eginez, zentzuzkoena izango litzateke hirigintza-funtzioa zutela pentsatzea, hiriaren garapenaren muga adierazteko eta hurbileko auzoetarako orientazioa errazteko, bide-banatzaille, alegia. Bidegurutzeetan estrategikoki kokatuta daudela kontuan hartuta, horixe erakusten duela esan daiteke.

- **Jauregiak.** Elorrioko XVI. mendeko eraikuntza garrantzitsuenak –gururaino iraun dutenak– jite erlijiosokoak dira (Sortzez Garbiaren basilikako lan nagusiak eta San Agustineko elizakoak, eta hogeit bat gurutze); XVIII. mendekoak jite publikokoak (udaletxea, errabalekako zoladura eta iturriak); baina XVII. mendeko eraikinik aipagarrienak zibilak dira (jauregiak)<sup>32</sup>. Hona hemen jauregi guztien zerrenda, gaur eguneko kokapena eta gutxi gorabeherako eraikitze-data (edo berrikuntza garrantzitsuenak noiz egin ziren) agertuta:

<b>Jauregiak</b> (egungo kale-izendegia)	<b>Mendea</b>
Aldape-Beitia (Urarka kalea, 4)	XVII. mendearen bigarren erdia
Altzerreka Mendiola (Berrio-Otxoa kalea, 27)	XVII. mendearen bigarren erdia
Arabio Etxabarria (San Pio X. kalea, 1)	XVII. mendearen erdialdea
Esteibar Arauna (Urarka kalea, 2)	XVIII. mendearen lehenengo erdia
Arespakotxaga (Don Tello kalea, 1)	XVII. mendearen lehenengo erdia
Arespakotxaga Andueza “Txintxirri”	XVII. mendearen bigarren erdia

<sup>31</sup> 1980. urtearen hasieran artean bazen beste bat Arespakotxaga jauregiko ortuan, baina gaur egun desagertuta dago. Gurutze hori, Jaime de Kerexeta idazle elorriarraren iritziz, antzina Angion zegoena izan zitekeen. J. Kerexeta de, *Linajes y casas solariegas de Elorrio*. Bilbo, 1990. 14. or.

<sup>32</sup> Hala ere, garai horretakoak dira elizako kanpandorreko erlijio-eraikuntzak (1661-1672) eta Santa Anako monasterioa (1671-1699), edo plazako zoladurako herri-lanak (1685).

(San Pío X. kalea, 3)	
Arespakotxaga Askarraga (Elizburu kalea, 1)	XVII. mendearen bigarren erdia
Arriola (Berrio-Otxoa kalea, 13)	XVII. mendearen lehenengo erdia
Ibarguen Urkizu (Berrio-Otxoa kalea, 14)	XVI. mendearen amaiera
Iturbe (San Pío X. kalea, 11)	XVI. mendearen amaiera
Iturri (Elizburu kalea, 18)	XVII. mendearen bigarren erdia
Lariz (Buzkantz kalea, 22)	XVII. mendearen bigarren erdia
Larreategi (Elizburu kalea, 22)	XVII. mendearen bigarren erdia
Lekerika Otsa (Berrio-Otxoa kalea, 20)	XVII. mendearen bigarren erdia
Otsa Lekerika (Berrio-Otxoa kalea, 26)	XVIII. mendearen lehenengo erdia
Urkizu (Berrio-Otxoa kalea, 5)	XVII. mendearen bigarren erdia
Urkizu Iturbe (Berrio-Otxoa kalea, 8)	XVII. mendearen bigarren erdia
Urkizu Esteibar (Gernikako Arbola plaza, 2)	XVII. mendearen lehenengo erdia
Urkizu “Tola” (San Vicente kalea, 1)	XVII. mendearen bigarren erdia
Zearsolo (Berrio-Otxoa kalea, 2)	XVII. mendearen bigarren erdia

- **Santa Ana monasterioa.** Elorrioko historian kontuan hartu beharreko beste eraikin enblematiko bat Santa Ana monasterioa dugu. XVII. mendearen amaieran erromesentzako aterpea eraldatu eta komentu bihurtu zuten Elorrioko merkataritza ospetsu batzuen diru-laguntzei esker; 1671n hasi zen prozesu luzearen emaitza izan zen, Ermuko Santa Margarita moja domingotarren komentua Elorrioko Santa Anako etxe eta kaperara eramatea zen helburua. Zeregin horretarako batzorde bat eratu zen kide hauekin: Francisco de Estacasolo lizentziatua Erregearen Erret Kontseiluetako abokatua; Domingo de Lekerika, Tomas de Urkizu e Iturbe, Benito de Urkizu eta Diego de Urkizu. Batzordearen buru alkate eta epailea zen Gregorio de Oalora kapitaina zen –guztiek ondo baino hobeto ezagutzen zituzten Sevilla, Indiak eta hango merkataritza, nola ez ba.<sup>33</sup> Ordurako gizon horiek argi zuten zein garrantzitsua zen Elorrioko monasterio bat egitea; bazekiten oso onuragarria izango zela herriarentzat, bai erlijio-ikuspegitik –“*servicio a Dios Nuestro Señor*”–, bai kulturaren eta ekonomiaren ikuspegitik –“*bien universal para la villa*”<sup>34</sup>. Izan ere, komentuarekin batera, gramatika-mintegia irekitzea pentsatua zuten. Mintegiaren ardura bi erlijio-gizon jakintsuk izango zuten eta hiriko gazteei irakastea zuten helburu: “*para que los jovenes se pondrían en astillero de aspirar a mayores*

<sup>33</sup> Betidanik izan da deigarria bertako klaustroa, Andaluziako patio baten antz handia duen Bizkaiko arkitekturako multzo bitxia. Baina komentuaren fundazioaren atzean zein pertsonaia zeuden eta pertsonaia horiek Sevilla hiriarekin zuten lotura kontuan hartuta, argiago geratzen da halako antza edukitzea nondik datorren.

<sup>34</sup> E. Rodríguez; *El monasterio de Santa Ana de Elorrio*. Bilbo, 1998. (40. or.).

*estudios y con ellos a puestos sublimados*".<sup>35</sup> XVIII. mendean hiriko biztanleek bai Indietan bai Espainiako hainbat tokitan izan zituzten funtzionario-karguen gorabeherak ikusita eta aztertuta, epe ertain eta luzerako helburu horiek oso portzentaje altuan bete ziren.

1691n, hogeitun urte geroago, monasterio berria eraikitzeko gordailuan bildutako diru kopurua 70.033 errealekoa zen, eta horiek oso esku onetan zeuden, Domingo de Lekerikak baitzituen. Data horren aurretik eta ostean egindako dohaintzak, gurera egiaztatuta iritsi direnak, honako hauek dira: 100 dukat Maria Jacinta de Arriola andereak (Martin de Arespakotxagaren alargun zenak) emanak 1680an; 1.500 zilarrezko ezkutu Simon de Zearsolok 1692an emanak; eta lursail bat, 5.500 errealeko balioa zuena, Diego de Urkizuk urte berean emana. Baina zalantzarik gabe, dohaintzarik garrantzitsuena Domingo de Larizek egindakoa da. Hura jotzen da komentua benetako egiletzat eta haren emaztea, Josefa de Monasterioguren, ez alferrik, une hartan Ermuko erkidegoko priorearen eta beste hiru mojaren ahizpa zen. Domingok, bizi zela, 30.500 erreale eman zituen, eta beste 22.000 gehiago erkideagoaren lekualdaketak eragin zituzkeen gastuak ordaintzeko, baina, hildakoan ere, monasterioa eta koinatak gogoan izan zituen, azken borondatea (1695ean) hauxe izan baitzen: testamenduaren legatuak ordaindutakoan, gainerako ondasunak –Sevillan izan zuen azkeneko konpainiaren etekinetatik zegozkionak barne– komentua eraikitzeko, ortuaren esparrua, apaingarriak, etab. egiteko erabiltzea. 1699rako monasterioa eraikita zegoela dirudi, eta, urtebete geroago, 1700ean, mojak iritsi eta bertan kokatu ziren.

Dena dela, Elorriko komentua eraikitzeko ideia ez zen berria, jakina baitzen etekin handia ekarriko ziola komentua hartzen zuen hiriarri. Jadanik 1595ean, Maria Martinez de Iturbe, Pedro Perez de Urkizuren alarguna, ahalegindu zen senarra zenaren azkeneko nahia betetzen hirian moja Agustindarren monasterioa eratzen ahalegindu zenean, hori ere Santa Anan, artean erromesen ostatu eta ospitale zena. Arrazoia zehazki zein izan zen ez dakigu, baina proiektua bere horretan geratu zen; hala ere, ziur gaude zerikusirik izan zuela eta ez zela ustekabe hutsa izan garai berean, Durangon, Santa Susanako moja Agustindarren monasterioa eratu izana.

- **Udaletxea.** XVII. mendearen bukaeran agertzen da jada Elorriok baduela eraikin bat bereziki udala hartzeko, eta horrela aipatuta agertzen da: "*Casa del Consistorio*"<sup>36</sup> edo "*Casa del Concejo*"<sup>37</sup>. Ordura arte, udal-izapideak eta kaparetasun-espeditenteak Sortzez Garbiaren eliz parroko sakristian edo artxiboan egiten ziren. Han, kutxa baten barruan eta hiru giltzarekin itxita, hiriarri eta bertako biztanleei buruzko agiriak gordetzen zituzten. Bestalde, bilkurarako eta

---

<sup>35</sup> E. Rodríguez, *El monasterio de Santa Ana de Elorrio*. Bilbo, 1998. (41. or.).

<sup>36</sup> BFA. Elorrioko Udal Artxiboa. 293/3874. 1682.

S. de Pagadigorriak ere bai, *La villa de Elorrio*. C.A.V. Bilbo, 1979. (51.or.). 1682. urtea aipatzen duenean.

<sup>37</sup> BFA. Elorrioko Udal Artxiboa. 6/76. 1685ko urtarrilaren 27a.

D. Gil Abadek ere bai, *Elorrio. Urbanismo medieval de la villa*. Bilbo, 1997. (223.or.).

erabakiak hartzeko tokiak hainbat izan ziren, plaza bera (lekurik ohikoena) XV. mendearen bukaeran, Susoko errebala, Belerineko hariztia eta Santa Ana plaza XVI. mendean.

Gaur egungo eraikina, fatxadako esaldiek diotenez, XVIII. mendeko bigarren erdialdekoa da (1773), Gabriel de Kapelastegi arkitekto elorriarrak egina<sup>38</sup>. Nahiko normala, Dona Gilek esaten digun moduan, jakiten badugu aurreko eraikinaren izkinak, torilen gainera jotzen zuena, 1755erako oso egoera txarrean zegoela<sup>39</sup>. Hala ere ez dago oso argi eraikuntza berri-berria egin edo erreforma batzuen ondorioa izan zen; ezta, berria izatekotan, gaur egungoa ordukoa zegoen leku berean egin zen ere.

XX. mendeko 80ko urteetan eraikina erabat zaharberritu zuten; fatxada guztia harriz harri desmuntatu zuten. Obrek iraun zuten bitartean, udaletxeko dependentziak eta funtzioak Urarka kaleko Aldape-Beitia jauregiko goiko solairuetara aldatu ziren. Udaletxea 1990eko uztailaren 4an berrinauguratu zuten, ordurako santu zen Balendin Berrio-Otxoaren jai-egunean. Udaletxeak, gaur egun, hiru solairu ditu: beheko solairuan zutabe sendoko hiru arkuko arkupea nabarmentzen da, solairu nagusian burdina forjatuzko alderik aldeko balkoi handia eta, bigarren solairuan, hiru bao simetriko handi. Era berean, fatxada nagusian eguzki-erloju bat eta bi armarri ikus daitezke: ezkerrean (begira dagoenaren ikuspegitik) Espainiako erresumarena, koroapean eta urrezko ardi-larruaz “toisón de oro” inguratua<sup>40</sup>, eta eskuinean (begira dagoenaren ikuspegitik) Bizkaikoa eta Elorrikoa, lehoi batek atzaparrekin eusten dituela. Haien oinean Idazteunetatik ateratako bi esaldi: “En la casa del que jura, no faltará desventura” eta “De toda palabra ociosa, darás cuenta rigurosa”.

---

<sup>38</sup> S. Pagadigorria de, *La villa de Elorrio*. C.A.V. Bilbo, 1979. (51. or.). Udaletxearen fatxadako esaldiak aipatzen ditu: “*fecit Capelastegui*” eta “*Año 1773*”.

<sup>39</sup> D. Gil Abad, *Elorrio. Urbanismo medieval de la villa*. Bilbo, 1997. (221-223 or.).

<sup>40</sup> Austriatarren (Habsburgotarren dinastia) ezaugarria, gerora Borboiek erabili zutena.

## 5. ELORRIO, TERMEN HIRIA. (XIX-XX. MENDEAK)

- **Bainuetxeak.** Aipatzen ari garen garaian, erresumako jende aberatsena erakartzeko beharrezko betekizun eta ezaugarriak betetzen zituen Elorriok: kokapena, biztanleak, klima, paisaia, etab. Gainera, endemiarik ezagutu ez zuen Bizkaiko hiri bakarretakoa zen<sup>41</sup>. Eta hori baino garrantzitsuagoa zena: bazituen (eta baditu oraindik) burdin urezko iturri asko eta ur sufretsuzko 5 iturburu ezagun: bat Santa Katalinakoa, Udalaitz mendiaren magalean eta hiritik 2 kilometrora; beste bat Gurutze Barri deiturikoa, hiriaren mendebaldean, Elorriotik Durangorako errepidearen eskuinaldean; hirugarrena Teletxe edo Toloto deiturikoa, Galartzako iturburutik 300 bat metrora dagoena eta, azkenik, bainuetxe gisa eraldatu eta ustiatuko ziren biak, Isasi-Olabezar edo Galartzakoa eta Belerinekkoa.

XVIII. mendearen amaierarako aintzatetsita zegoen jada Isasi-Olabezar edo Bainu Zaharretako iturburuko ura terapeutikoa zela. Besteak beste, honako gaixotasun hauek sendatzeko onak omen ziren: jatorri astenikoa zutenak (biriketako katarro kronikoak, eskrofulak, erreumak); azalekoak (herpes, erupzioak); eta urogenitalak (baginitisa, kanpoaldeko sifilisa). Hala ere, gauza bat argitu behar da: gaixoa oso urduria edo epileptikoa zenean, edo larruazala erraz gorritzen zitzaionean, ura asteme-esnearekin, gazurarekin edo bestelako botikekin nahastu behar izaten zen. Ondorioz, Domingo de Isasik, artean iturburua zegoen lurraren jabea zenez, behi-behineko etxetxo bat eraiki zuen eta bertan lau bainuontzi ipini zituen haxe lortzeko: *“la gran ventaja de respirar un aire muy cargado de gas hidrógeno-sulfurado”*<sup>42</sup>. Geroago barrakoi batzuk eraiki zituzten; baina XIX. mendean, 1840 inguruan ekin zitzaion benetako egoerari doituriko obrari. Obra horren emaitza beheko solairua eta beste bi solairuko paralelogramoa izan zen. Hurrengo hamarkadetan bestelako moldaketak eta berrikuntzak egin ziren, eta ondorioz, leku hura 180 lagunentzako egokitu zen eta 1877rako, jende gehien joaten den Bizkaiko bainuetxea zen.

Belerin edo Bainu Berrietako iturburuari dagokionez, 1822 eta 1826 urteen artean hainbat harreman izan ziren Juan Ramón de Urkizuren (iturburua dagoen lurraren jabea) eta Udalaren artean (Kurutzia gako parajearen jabea), horren lurretan beste bainuetxe bat eraikitzeko eta ura Belerinetik desbideratzeko. Azkenik, akordiora iritsi ziren eta Bainu Berriak izenekoak eraiki zituzten. Hortik aurrera, badakigu 1861ean solairu bakarra zuela, baina hainbat moldaketaren eta berrikuntzaren ondoren, 1877an bi solairu eta 200 oin luzeko atzeko galeria zituela, eta 1879rako beheko solairua eta beste hiru zituen eraikina zela, eta haren fatxadetan begiratoki ederrak eta alderik aldeko balkoia nabarmentzen dira. 1885ean suak hartu zuen eta berreraiki eta berriro inauguratu zuten 1888an. Urtebete geroago, 1889an, bainuetxe hori Espainiako eta atzerriko bainuetxeetarako eredu bihurtua zen.

---

<sup>41</sup> M. Sarrionandia Gurtubay, *Historia de los balnearios de Bizkaia*. Bilbo, 1989.

<sup>42</sup> BFA. Elorrioko Udal Artxiboa. 83/997.



Hala ere, bainuetxeek ere gainbehera izan zuten XX. mendearen hasieran. Hortaz, Bainu Zaharrak desagerturik zirela, eraikina erosi egin zuten Aita Agustindarrek –Frantziako erlijiosoek– 1907an eta apaizgaitegi izan zen 1972ra bitarte. Ordutik gaurdaino ikastetxea da<sup>43</sup>. Gerra Zibilak iraun zuen bitartean (1936-1939) kuartela izan zen. Beste alde batetik, Bainu Berriak zeuden lurretan gaur egun Betsaide S.A.L enpresa dago, lehen Belerin S.A izan zena.

Beraz, argi dago Elorriok ere, bereziki XIX. mendearen azkeneko laurdenean, berari zegokion “Belle Epoque” bitxia eta originala bizi izan zuela. Urtez urte, ekainaren 1etik irailaren 30era (bainu-sasoi ofiziala), erresumako edozein tokitatik goi klaseko ehunka bainu-hartzaile ekartzen zituzten diligentziaz betetzen zen Elorrio. Benetako diru-iturria zen eta orduko nekazaritza-ekonomiari gehitzen zitzaion.

